

## Azkenekoan, dena jokoan

Mailaz igotzeko aukera du bihar Aurrera futbol taldeak ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2006-06-16 ▶ IV. urtea ▶ 913. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Sanjoanetako Azoka Bereziarekin hasiko dira bihar San Joan jaiak

**TOLOSA** ▶ Azoka Bereziak eta Ekologikoak bat egingo dute aurten San Joan egunaren aurreko asteburuan

**GAUR ETA BIHAR** ▶ Besteak beste, kale saskibaloia, sagardo txapelketa eta batelak ere izango dira ▶ 2



Ezker-eskuin: Asier Bakaikoa, Olatz Peon, Andoni Iturzaeta eta Jokin Monfort, atzo. N. LATABURU

**IBARRA** ▶

**Sormena agerian jartzeko aukera**

Emeterio Arrese 18. Literatur Lehiaketan ▶ 6

OSTIRALA 16

IBARRAKO  
**GAZTE FESTAK'06**


19:30 TXUPINAZOA 19:45 BATUKADA  
20:30 GRAFFITI & BREAK DANCE  
22:00 BARRIKOTEA 23:30 APUSTUA  
00:00 KONTZERTUAK PLAZAN  
OBRINT PAS & BETAGARRI

I.G.A.

**OLATZ AMUNDARAIN** ▶ ALEGIAKO ALKATEA

«Euskaraz bizi gara, baina normalizazio bidean gehiago lagun dezakegu»

Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide izango da laster Alegiako Udala ▶ 5



Olatz Amundarain. N. UREIZU

**VILLABONA-AIZTONDO** ▶

## Eskubide zibil eta politikoen aldeko eguna antolatu du 18/98+ plataformak

Bailarako lan taldeak deituta, auzian inputatuta dauden herrikideei elkartasuna adieraziko diete bihar ▶ 4



Elbarri eta 3. adin-erako bilatzen zenuen guztia!

- Gurpil-aulki elektrikoak
- Gurpil-aulki manualak
- Garabi elektrikoak
- Eskailerak igotzeko aparatuak
- Ohe artikulatua elektrikoak
- Bainurako laguntza teknikoak
- 3. adinerako materiala
- OSAKIDETZA-rekin hitzarmena
- Mantenimendu TAILERRA
- ALOKAIRU zerbitzua



Laskibar Industrialdea 19 Pab. 3-01 20270 IRURA

Tel.: 943 69 22 65 · Faxa: 943 69 43 89

posta eletronikoa: [mikelan@mikelan.com](mailto:mikelan@mikelan.com)

[www.mikelan.com](http://www.mikelan.com)

## SANJOANAK ▶

## ASTEBURUKO EGITARUA\* ▶

## BIHAR

**09:00.** Goiz guztian, Sanjoanetako Aparteko Azoka.

**09:30.** Alde Zaharreko kaleetan, dultzaineroen eta Musika Eskolako ikasleen diana.

**10:00.** Goizez (Foruen etorbidean) eta arratsaldean, (San Frantzisko ibiltokian), kale saskibaloia (3 x 3), VII. San Joan saria.

**10:00.** Usabalen igeriketa probak, XXXVIII. San Joan saria.

**16:00.** Beotibarren, Tolosaldeko San Joan Pilota Txapelketako finalak (alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak).  
**17:00.** Usabal kiroldegian Europako Abesbatza Kantuaren 18. Sari Nagusia.

**17:00.** Graffiti Lehiaketa, Triangulo plazan.

**17:00.** Plaza Zaharretik zezen-plazara, aurkezpen paseoa, Tolosako Musika Banda, agoazilbo eta zaldi mutilekin.

**18:00.** Korrida, zezen-plazan. Isaias y Tulio Vazquez ganadu

etxeko 6 zezen toreatuko dituzte Iker Lara, Sanchez Vara eta Denis Lore toreadoreek.

**19:00.** Berdura plazan, Sagardo Txapelketa, San Joan saria. Sagardo dastatzea. Antolatzailea, Batasuna elkarte.

## ETZI, IGANDEA

**09:30.** Beotibar pilotalekuan, Tolosako Beotibar Zesta-punta Eskolak antolatuta, XV. San Joan Zesta-Punta Txapelketa.

**10:00.** Xake-Jokoa,

Trianguloan, Tolosako Xake Elkartek antolatuta: XXXIII. Nazioarteko Lehiaketa taldeka, XXX. Enrique Pineda Memoriaia.

**11:00.** San Frantzisko ibiltokian, Harizpe Elkartek antolatuta, Toka Lehiaketa.

**12:00.** Oria ibaian batel estropadak (saillapen probak).

**17:00.** Berazubiko futbol zelaian San Joan jaietako XVII. Kimu Futbolaren finalak, XI. Joseba Lasa Memoriaia.

**18:00.** San Frantzisko

ibiltokian Txirrindulari Criterium-a izango da, Jose Manuel Ansorena X. Memoriaia, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta. Emakumezko, kadete, gazte eta afizionatu mailako txirrindulariekin.

## OSTEGUNA, HILAK 22

**16:30.** Haur Liburutegiaren inaugurazioa: ikuskizunak, jolasak (mozorrotuta etorri), txokolatada...

\*Egitarau osoa

[www.tolosaldeko-hitza.info-n](http://www.tolosaldeko-hitza.info-n)

# Gau motzenaren aurretikoak

Sanjoanetako Azoka Bereziak emango dio hasiera San Joan jaiari; atzo aurkeztu zuten «egitarau zabala»

## NOELIA LATABURU

Sanjoanetako Azoka Bereziak iragarriko ditu, bihar goizean, 2006ko San Joan jaiak. Aurten goan, gainera, bi azoka izango dira egun batean: Sanjoanetakoaren 17. edizioa eta Ekologiakoaren 12. edizioa. Hauek eta San Joan jaietako «egitarau zabala» osatuko duten bestelako ekitaldiak atzo aurkeztu zituzten hiru formatuetan —kartela, egitarau handia eta txikia— Kultur zinegotzi Andoni Iturza-etak, Festa teknikari Jokin Monfortek, Tolosako alkateorde Olatz Peonek eta Kirol teknikari Asier Bakaikok. 104.000 euroko aurrekontua izan dute jaiak prestatzeko; «ekitaldiak oso estu geratzen zirenez, batzuk aurreko asteburura pasatu ditugu», azaldu zuen Iturza-etak.

Hala, asteburuan makina bat ekitaldi izango da aukeran, musikarako, kirolerako eta beste-lako ekitaldiatarako tartea utzi dutelarik. Baina, aipatu bezala,

guztietan nagusia Azoka Berezia izango da. 09:00etan hasi eta 14:00etara bitarte Errioxako (Espainia) eta Euskal Herriko saltzaileek euren produktuak San Frantzisko ibiltokian atonduko dituzte. Askotariko produktuak izango dira erosleentzako; era guztietako jakiak, edariak bai eta jantziak ere. Halaber, Ekonekazaritzak informazio mahaia jarriko du.

San Frantziskoko saltzaileen artean sariak banatuko dituzte, Tolomendiren laguntzarekin. Lau arlotan banatuko dituzte lehen eta bigarren sariak, 150 eta 100 euroekin, hurrenez hurren: barazki onena, fruitu onenari, kalitate handieneko postua eta barietate handieneko postua. Sari banaketa 12:00etan burutuko dute, Triangulo plazan.

Herriak pixkanaka kolorea hartzen joango da, beraz, asteburuan, ostirala heldu artean. Ordutxe lehertuko baita festa, hiru egunetan zehar luzatuko dena.



Jende asko erakartzen du urtero Sanjoanetako Azoka Bereziak; argazkian, iazko edizioa. IMANOL GARCIA

## PARTAIDEAK ▶

**Azoka Ekologikoa.** Guztira, 22 izango dira: Galarraga Goenaga (Errezil); Sarobe (Anoeta); Leunda Berri (Beizama); Soronea (Tolosa); Teileri (Berrobi); Olano (Astigarraga); Blasenea (Zarautz); Aldaba-Zahar (Tolosa); Pikuñeta (Antzuola); Manttagorri (Lasarte); Aikur (Urretxu); Goiabe sukaldea (Aia); Bittori (Araba); Okondo

(Araba); Borobia (Ozaeta); Viña Ebro (Lizarraga); La Txurta (Allo); Talotegia (Leiza); Maximon (Donemaria); Tea-Alicia Ruiz (Amezkoa); Belsi (Iruñea); Mikele (Gamarte).

**Sanjoanetako Azoka.** Eugenio Elorza (Segura); Arnabar (Murua); Bodegas Casado (La Puebla de la Barca); Bodegas Ramirez (San Vicente

de la Sonsierra); Bombones Iruen (Iruen); Conservas Felix Roldan (San Adrian); Conservas Nardin (Zumaia); Embutidos Amutio (Baños de Tobia); Errezilgo azoka (Errezil); Goiburu (Urnieta); Ibericos Labrador (San Esteban de la Sierra); Katealde (Altsasu); Orueta goikoa (Laudio); Pagorriaga (Beasain); Sar Arrastia (Villefranche).

**12.000 €** (C4) / **17.300 €** (C5) / **8.100 €** (C1) / **9.000 €** (C3)

Hil honetan aurkitu prezio apartak:

**12.200 €** (C4) / **17.300 €** (C5) / **8.100 €** (C1) / **9.000 €** (C3)

**IROVI, S.A.** Citroën Konzesionario Ofiziala  
Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

**IRITZIA ▶ LEIRE MONTES** (TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-KO ZUZENDARIA)

## Hedabideak bultzatzeaz eta benetako egoeraz

**P**atxi Baztarrrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburordeak benetako egoerarekin zerikusirik ez duten hitzak esatea leporatu omen digu. Omen diot, izan ere, hitz horiek EKTkoek (Euskarazko Komunikazio Taldea) bota dituztela dio, baina segidan EKTkoek jaso dezaketean diru laguntzan HITZA guztien —tar-tean, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAIENA— eta *Hernaniko Kronika*-ren diru laguntzak ere sartu omen ditu. Beraz, aipatu ez gaituen arren, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAZ ere ari dela dirudi. Eta benetako egoeraz ari garela, gogorazazi nahi nioke sailburuordeari TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN eta gainerako Hitzetan ere EKT parte dela eta laguntza handia ematen digula, baina EKTekin batera tokiko euskara elkarteak eta gizarte eragile pila bat badirela Hitzetako kide. Beraz, diru hori ez du EKTk jasoko. Zati bat EKTk jasoko du, eta gainerakoa Hitzek, HITZA bakoitzak berea, eta *Hernaniko Kronika*-k. Beraz, hasteko, benetako egoera hori da. Baztarririk dion bezala, euskalgintza oso anitza da, eta HITZAK ere hala dira. Eta ez bakarrik euskalgintza,

gizartea, oro har, oso anitza da. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN, behintzat, hala uste dugu eta egunero horren isla izaten saiatzen gara. Harro gaude horretaz, eta uste dugu, hein batean behintzat, lortu dugula.

Datuen errealitateaz ere bi hitz esan nahi nituzke. 2002-2006an komunikabideen deialdiak %38 egin duela gora dio Baztarririk. Aldizkari Ofizialean kaleratutako 2002ko diru laguntzen ebazpena begiratu, ez dakit datu hori nondik atera duen sailburuordeak. 2002an 4.118.000 euro banatu zituen Kultura Sailak hedabide guztien artean eta 2006an 4.750.000 banatu nahi ditu. Beraz, igoera %15,3koa da. Baina gogoan izan behar da 2003, 2004 eta 2005ean diru laguntza ez zela 4 milioi eurotara iritsi. Egia da 2005etik 2006ra igoera nabarmena izan dela: %25ekoa. Baina azter dezagun igoera hori. Izan ere, 950.000 euro gehiago jarriko ditu Kultura Sailak, eta horietatik 507.650 gaztelarazko prentsarentzat izango dira, euskarazko gehigarriak egiteko, eta 350.000 telebistentzat. Beraz, gainerakoentzat igoera hutsaren hurrengoa da.

Euskal hiztun gehienek gaztelarazko prentsa irakurtzen dutela ere esan du Baztarririk. Hori konpontzeko bidea gaztelarazko komunikabideei —tar-tean, milioika irabazi deklaritzen dituzten enpresak— euskarazko gehigarri bat egin dezaten dirua ematea al da? Uste dut urte hauetako guztietako esperientziak argi utzi duela hori ez dela bidea. Esperientziak hor daude, eta argi ikusi da gaztelarazko prentsak euskarari tratamendu testimoniala baino ez diola ematen. Benetako presioa egiten ez bada, behintzat, ez da lortuko euskarak tratamendu duina izatea, eta benetako presioa ez da alde aurretik dirua jasoko dutela jakinaraztea. Ez al da logikoa goa benetan euskarazko prentsaren aldeko apustu sendoa egitea eta euskarazko produktuei dagokien eta merezi duten lekua eskaintzeko lan egitea?

CIES datuak ere aipatu ditu Baztarririk, gaztelarazko prentsak 887.000 irakurle dituela esateko. CIESen datuak hartuko ditut nik ere Gipuzkoan Hitzek 69.000 irakurle ditugula esateko —eta CIESen neurketa ez da Hitzekiko oso justua, 23 herritan egin baitute azterke-

ta eta horietatik 13 herritan baino ez dago Hitza—. Gipuzkoako bigarren egunkaria gara, eta erakundeek ez gaituzte inondik inora hala bagina bezala tratatzen. Eta ez naiz diru laguntzetaz soilik ari, gaztelarazko komunikabideek izugarrizko dirutza jasotzen baitute erakunde publiketatik. Hitzek, ordea, apurrak. Horretan jarrera aldatzea funtsezkoa izango litzateke euskarazko hedabideak bultzatzeko.

«Kultura Sailak ez du euskarazko prentsa lagundu nahi» esamoldea ohiko bihurtu omen dugu. Ohiko bihurtu dugu benetako egoera horrelakoa delako. Kultura Sailak euskarazko prentsari 2002an 3.167.000 euro eman zizkion eta 2006an 3.339.050 ematea aurreikusi du. Beraz, bost urtetan %5,4 igo ditu laguntzak, askoz proiektu gehiago dagoen arren, eta KPI urte hauetan %14 igo den arren. Hori da benetako egoera.

Elkarlanaren gaia ere hor dago. Beharrezkoa, noski, inork ez du hori zalan-tzan jartzen. Baina, horretan erakundeak ez al lirateke eredu izan behar? Ez dut uste, sektorearekin eztabaidatu gabe, diru laguntzetan hazkunde nabarmena orain arte existitzen ez zen partida bati ematea —gaztelarazko prentsaren euskarazko gehigarri, alegia— elkarlan eredu denik.

**KULTURA ▶**
**JOXEMI SAIZAR**

**G**au xarmangarria bizitu zuten larunbat gauean Zumardi Handira joan zirenek. Tolosan aspaldi ikusi ez den bezalako musika eta dantza jaialdiaz gozatu ahal izan zuten. Eszenatokitik ikuskizun ederra eskaini zen, oso modu txukunean aurkeztuta eta arintasunez. Emanaldi baten kontzeptu guztiz berri eta modernoa izan zen, duela mende bateko folklore zaharkitua alde batera utzi eta XXI. mendeko ikuskizuna eskainiz.

Horretan lanean aritu ziren 300 pertsona inguruk zeresan handia izan zuten. Musikariek, abeslariak, dantzariak, beste parte-hartzaileak eta teknikariak bere onenak eskaini zituzten ikusle goaren gozamenarako. Egindako lanaren fruitua ederkiki erakutsi zuten.

Aspaldian eginkizun handirik ez zuten Zumardi Handia berreskuratu egin zen. Eta Txixi Orbegozok prestatutako eszenografiak naturgune honetan murgiltzeko gonbita egiten zuen sarreretatik abiatuta: lastergiak, kandelak bidean, in-tsentsua, eszenatokia, proiektatutako irudiak, oihalak, abeslariak kandelekin, kea... Zentzumen festa bihurtu zen hango doinu, kolore eta usain eskaintza. Horrelako ikuskizunetarako leku irekiek beti eguraldi txarraren mehatxua dute

## Gau xarmangarria

### Emanaldi zirraragarriaz gozatu ahal izan zen larunbatean San Joan Kontzertuan; bi mila lagunetik gora joan ziren Zumardi Handiko parajeetara



Herriko taldeek bat egin zuten, larunbatean, Zumardi Handiko kontzertu berezian. JOKIN MONFORT

ganean, baina antolatzaileei apustua ondo atera zitzaion.

Zer ikusi zen taularen gainean? Herriko talde gehienak: musika banda, txistulariak, abeslariak, dantzariak (euskalduna, klasikoa eta modernoa), perkusio taldea, jazz laukotea, bakarlariak, erraldoiak, txalaparta... Ez da lehen aldiz herriko taldeak jaialdi batean biltzen direna. Gogoratu data hauetan hainbat urtetan Eus-

kal Herria plazan egin zena. Baina honetan, leku aldaketaz aparte, kontzeptuan jauzi nabarmena izan da. Alde batetik erreperitorioaren aukeraketa aipatu behar da. *Derrigorrezko* San Joan zortzikoa gain, gure beste jaiei (Inauteri) keinu pare bat egin zitzaion, zenbait euskal kanta ezagun sartu ziren (tar-tean Ignazio Mokoroa tolosarraren *Neure maitena* ederra) eta doinu afrikar ba-

tzuk ere izan ziren. Horiek guztiak maisuki moldatu eta uzartu zituen Juantxo Zeberioiok ikuskizunari batasuna emanaz. Jazza eta zortzikoa, txalaparta eta makunba, doinu afrikarrak eta Iparraldeko kantak arazorik gabe uzartu ziren. Hori da mestizajea! Euskaldun eta mundutar sentitu ziren hain bildutakoak. Ordu eta erdiko saioak hari bat jarraitu zuten, jazz laukoteak protagonismo

handia izanik josteta lan horretan. Une sentikorragoak eta alaiak ederkiki tartekatuz zituzten ikusle goaren konplizitate lortuz kasu denetan. Ileak lastu zitzaizkion bati baino gehiagori. Baina musika hutsa ez zen izan jaialdia. Oinarri musikaren gainean ikusteko asko paratu zuten oholtzaren gainean eta eszenatokiko alboetan: dantzariak, erraldoiak, Mulambo perkusio taldea, txalaparta...

Eta jendea, zer? Oso ondo erantzun zuten. Jaialdia hasi baino minutu dezente lehenago bete zituen prestatutako ia 700 aulkia. Gehienek zutik jarraitu behar izan zuten saioa atzean, mendian, ibaiaren bestaldean... Eta han ikusi eta entzundakoa eskertu zuen txalo zaparradekin. Tarteka, jaialdian murgildu zen txaloekekin lagunduz interpreteen lana. Eta bukaeran, komentario onak besterik ez ziren entzuten. ETBk ikuskizuna grabatu eta San Joan egunaren bezperan eskainiko du telebistaz. Gau xarmangarria izan zen. Zenbat denbora pasatuko da horrelako beste zerbait ikusteko?

## ANOETA ▶ KORPUS JAIK



## Buruhandien eta pailazoen artean ederki igaro dute eguna herriko txikienek

I. Garcia ▶ Haurrak dira festetan gehien gozaten dutenak. Ikustekoa da beraien urduritasun aurpegiak buruhandiak urrutian ikusten dituztenean, edo nola parte hartzen duten pailazoek josten dituzten istorioetan. Anoetako jaietan atzokoa zen beraien eguna eta ederki igaro zuten bai Udalak bai Herri Borondatearen Aldeko Jailetan prestatutako ekitaldietan. Barrakak erdi prezioan izan zituzten, aukeran.

Gaurkoan, besteak beste, jubilatuen arteko Toka Txapelketa jokatu dute, 11:00etan, eta ume eta helduen play-back jaialdia egingo dute, 19:00etan, Udalak antolatutako egitarauan. Herriko eragileek antolatutakoan, besteak beste, 19:00etan sagardo dastaketa egingo dute, eta 20:30ean bertso afaria Iker Zubeldia, Amaia Agirre eta Iban Urdangarin bertsolariekin. I. GARCIA

## POLITIKA ▶

## Elkartasuna adieraziko diete 18/98 auzian inputatuta daudenei

Eskubide zibil eta politikoen aldeko eguna antolatu du Aiztondo bailarako 18/98+ plataformak biharko

## ERREDAKZIOA

Eskubide zibil eta politikoen eguna egingo dute bihar Aiztondon. Bailarako 18/98+ lan taldeak antolatu du, auzian inputatuta dauden herrikiideei sostengua eta elkartasuna adierazteko. Lan taldearen helburua 18/98 auziak suposatzaren dituen gastuei aurre egitea da, baina oraingo honetan, esan bezala, elkartasuna adierazteko antolatu dituzte hainbat ekintza.

Mendi ibilaldiarekin hasiko dituzte ekitaldiak. Aizkardi elkarteok antolatuta, 09:00-

etan abiatuko dira, Villabonako Errebote plazatik eta Asteasu eta Zizurkil igaro ondoren. Villabonara itzuliko dira. 11:00etan joko garbi partidua egingo dute Villabonako Errebote plazan, Behar Zana elkartearen eskutik. Haurrek ere izango dute bere tartea, 11:00etan ere, umeentzako jolasak egingo baitituzte Zizurkilgo Joxe Arregi plazan. Villabonako eta Zizurkilgo gazte asanbladek antolatuta. 12:00etan hamaiketako herrikoia Errebote plazan, Irrintzi eta Urkamendi elkartearen eskutik. Plaza horretatik abiatuko

da, 13:00ak inguruan, manifestazio ixila.

## Mozioen onarpena

Hain zuzen, Villabonako Udalak eta Adunako Udalak manifestazioan zein beste ekitaldietan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrek bando bidez. 18/98+ plataformak udal bakoitzean aurkeztutako mozio bana onartu dute bi udalok. Besteak beste, bi mozioek «18/98 eta bestelako sumarioen izaera politikoa salatzen» dute, eta epaiketa «bertan behera uztea» eskatzen dute.

## TOLOSA ▶ ZESTA-PUNTA

## APPren denboraldia abian, gaur Beotibarren

## ERREDAKZIOA

APPren denboraldia abian jarriko dute gaur Tolosako Beotibar pilotalekuan izango den zesta-punta jaialdian. Odriozola anoetarra eta Jon Arriaga Konparekin eta Goitiarekin lehiatuko dira.

22:00etan ekingo diote partidari pilotariei. APP zirkuituak uztailean izango ditu hurrengo hitzorduak Markina Herria Txapelketa eta Dornostia Jai Alive Pro sarian. Abuztuan, Urrezko Guantea jaialdian neurtuko dituzte indarrak pilotariei.

## VILLABONA ▶ ERREBOTE

## Autobusa erreboteko kirolariei animatzeko

## ERREDAKZIOA

Villabonako Behar-Zanako errebote taldeak Ligue de Pelote du Pays Basque antolatutako txapelketaren finalaurrekoa jokatu du etzi Uztari-

tzeko Kapito Harri taldearen aurka, Sarako (Lapurdi) errebote plazan, 10:30ean. Behar-Zanak autobus bat antolatu du kirolariei animatzeko. Izena emateko 661 28 50 41 zenbakira deitu behar da.

# TOLOSAKO

## SANJOANETAKO AZOKA BEREZIA

EKAINAK 17 SAN FRANCISCO BILBIDEAN

Diazoka balean: **AZOKA EKOLOGIKOA** eta **SANJOANETAKO AZOKA**  
(produktu ekologikak, salbutezko produktuak)

**Zerkausiko saltzaileen artean sari banaketa:** Triangulo plazan egundeko 12etan sarazki onena, trula onena, postu politena, bar edate harrizko postua







OLATZ AMUNDARAIN ▶ ALKATEA

# «Euskaraz bizi gara, baina normalizazioaren bidean gehiago lagun dezakegu»

Alegiako Udalak Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko kide izateko pausoa uztailearen 2an formalizatuko du



N. U.

NEREA URBIZU

29 urte izanik ere, Alegiako alkate den Olatz Amundarainek herriko arazoak arintzeko eta aurrerapausoei bide egiteko ardura hartzeko gaitasunak erakutsi ditu. UEMArekin (Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea) loturik dauden kontuak HITZARI aipatu dizkio.

**Alegia UEMAN sarturik: nolatan edo zergatik?**

Euskararen normalizazio bide horretan Udak bezala eta udalari bezala, pausok eman behar zirela ikusi genuen. Euskaraz bizi gara, baina beste zerbait ere egin zitekeela ikusten genuen. Beti eremu batzuk daude non euskaraz bizitzeko eskubideen maila mugatuagoa

dagoen. Udaleri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeak alde horretatik laguntza eman-gigula ikusten dugu.

**Zer egin daiteke euskararen normalizazioan aurrera egiteko?**

UEMA horretarako tresna bat da: euskara eguneroko hizkuntza alor eta arlo guztietan normaltasunez erabiltzeko. Baina ez da ezer lortuko udalariak hartzen dituen konpromisoak gero betetzen ez badira. Gauza bat da konpromisoa hartzea, eta beste bat hori betetzea. Denok gure aldetik jarri behar dugu.

**Zeintzuk dira Alegiak dituen beharrak?**

Etorkinena adibide bat da: orain landu behar den zerbait

da. Alegian euskarazko irakuntza eskaintzen da, eta nolabaiteko irtenbidea eman behar zaio horri. Bestalde, beste adibide bat merkataritzako guneetakoa da; kartelak euskaraz ikustea arrunta bihurtu behar da, Kontseiluarekin batera bideratu nahi dugu.

**Jendeak edozer pentsa dezake. Zergatik Alegia UEMAKo partaide?**

Besterik gabe, beste baliabide bat gehiago da UEMArena. Bertako partaide izateko hainbat baldintza bete behar ditu; besteak beste, biztanleriaren %70 euskalduna izatea, eta Alegiak hori erraz betetzen du. Gehienbat dokumentu fisikoak ere euskaraz erabiltzeko nolabaiteko laguntza jasotzeko da, etorkinei ere laguntza emateko.

**Uztailearen 2an UEMA Eguna.**

Bai, aurten Alegian egingo da, hainbat ekitaldirekin. 12:00-etan Alegiako Udalaren batzarrara egingo dugu, UEMAKo partaide izango garela onartzeko.

GUTUN@K ▶

## Ikaztegiako Udalari

Alkate jauna: hasteko, ez diotzu nire gutunari erantzun. Gertatutakoari heldu eta zuen akatsa onartu beharrean, beste kontu baten bidez zuen burua zuritu nahi izan duzue, eta hori ez da bidea. Egiak min egiten du, nonbait.

Ez dakit zertara datorren, duela 4 urte —eta ez 6— botatako 300 metro brearen berri. Ez du bestearekin zerikusirik, baina azalpenak ematera behartzen nauzu.

Ondo dakizue Udala osatzen duzuenok diru asko gastatu dugula, herri-bide hau tarteko. Hau, Area 2tik Muñora doan bidea, gure etxera eta Orendainera ere badao. Eta herri-bidea den neurrian, gure bezainbat da herritarrena, eta edonor pasa daiteke. Beraz, zergatik ordaindu guk, nonbaiten sobratutako brea ondar hori? Zuk niri esana, nik zuri bueltan: gezurrik bide motza du. Hobe da lehenik norberak berea bete eta gero besteekin erakustea. Zure hitzek ez dute fidagarritasunik.

Harira: gezurra da ertzainak etorri arte bidea itxia egon zenik. Komeni izaten da

zerbait publiko egin aurretik ongi informatzea. Aski ezaguna dugun batek ireki zuen bidea, eta ez ertzainek: Udalak ez zion Ertzaintzari deitu. Ez al zaizu bidezkoa iruditzen gauzak zeuden moduan, zuen juzgua egitea? Han izan bazin, momentuan argituko genuen... Akatsa zurea eta Udal talde osoarena da; zertarako zaudete hor? Bidea mozteko egunaren berri ez izatea ere...

Hiru familia, eta horietatik bi, zuen aurka. Gauzak ongi egin ez diren seinale. Ertzainek ere arrazoia eman ziguten, zuen akatsa dela baietzatuz, hortik atera kontuak!

Egunkarietan irteera ez duzula gustuko: hori ere sinetsi beharko. Kontatzeak aldekoa izan denean ez zaizu hainbeste kostatu.

Lerro hauek motz geratzen dira esango nukeen guztia esateko. Zu eta zure gainetik dituzunak, berriz gaiarekin lotura ez duten kontuekin bazatzen, nik ere bide horri helduko diot. Eta bada zer kontatua. Ea nor duen ezkutatzeko behar gehiago. Beraz, zuek atez atez dituzue kontuak. Gauzak hitz eginez konpontzen direla zenion. Inork ematekotan, alkateak eman beharko luke eredia.

ENERITZ MAIZ ETXARRI ▶ IKAZTEGIETA



## ELEKTRIZITATEA

Euskal - Herria, 27  
**IBARRA**  
Tel. 943 67 32 80

## Zuloaga & Gureak-en zure landarea dago.

“Zatuz gure instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dijon loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga & Gureak-eko Gerentea)

943 556 109 - Iparralde bidea z/g. 20014 Astigarraga, Futbol zelaiaren aurrean.



ZULOAGA & GUREAK  
zure konfiantzazko gardena

## EUSKAL TONBOLA

Euro boten truke alako sari!



Tuartekak ongi Gueuhoen osatitza tobernetan

**1€**

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

- ▶ egunero 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz
- ▶ uneoro informazioa eskura [www.tolosaldecohitzza.info](http://www.tolosaldecohitzza.info)

**KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA**

txartel berriarekin abantailak!

HITZA Harpidetza

1000 Aditza

Nº0000000000

0000000000

ABANTAILA EZ

beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste

HITZA

egunean 0,18 zentimoren truke etxean

## LIZARTZA ▶ POLITIKA

‘Naparra’  
gogoan, XXVI.  
urteurrenean

**Erredakzioa** ▶ Pasa den igandean, Joxe Migel Etxeberria *Naparra*-ren bahiketa, hilketa eta desagertetaren XXVI. urteurrena bete zen eta hori dela-eta, haren omenezko ekitaldia antolatu zuten eguerdian Lizartzan. Askatasunako eta Egia, Justizia eta Oroitzapena taldeko kide batzuek eta haren senideek hitz egin zuten, ibilbidea gogoratuz eta gorputza azaltzeko eta bake pixka bat izateko garaia dela aldarrikatuz. 80 lagun inguru bildu ziren monolitoaren aurrean eginiko ekitaldira. HITZA

## IBARRA ▶ KULTURA

Sormena agerian  
jartzeko aukera

Urtero-urtero, 100 lan inguru aurkezten dituzte Emeterio Arrese Literatur Lehiaketan; 18. edizioa da aurtengoa

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta, «haurren eta gazteen artean sormena eta hizkuntzarekiko ardura sustatzeko helburua» duen Emeterio Arrese XVIII. Literatur Lehiaketa abian da.

Lehiaketa honetara Ibarren bizi diren edo ikasten duten 16 urte arteko haur eta gazte guztiak daude deituta; antolatzaileek diotenaren arabera, «100 lan inguru izaten dira urtero-urtero aurkezten dituztenak». Banaka aritu diren parte-hartzaileek olerkia nahiz hitz lauzko lanak egiteko aukera izan dute, eta talde lana egitea aukeratu dutenek, berriz, prosan. Hala, literatur lana lantzeko nahikoa beta izan eta gero, gaur izango dute Ibarren udal-letzeko Euskara Zerbitzuan edota Kultur Etxean, kartazal

itxian sartuta —kanpoan lana-zen izenburua, maila eta moderatzea eta barruan egilearen izena eta bi abizenak, jaiotze-data, helbidea, telefono zenbakia eta ikasmaila— entregatzeko azken eguna.

Bihartik aurrera, beraz, Kultura eta Gazteria teknikariak, Euskara eta Hezkuntza teknikariak, Xabier Bengoetxeak, Begoña Olamusuk, eta Axun Aierbek osaturiko epaimahaiak hartuko dituzten erabakiak itzarrotea geratuko da. Irabazleen sariak liburuatarako bonoak izango dira. Lehiaketaren sari banaketaren berri ematen dutenean, irabazleei jakinaraziko zaie bertan izan daitezen.

betetzeko lanpostuak libre. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Harreragileak, telefonistak.** Plazak libre. Eskola Agiria dutenetik aurrera. 943 31 37 82.

**Agiritegiako laguntzaileak.** Arrasate, Bergara, Donostia, Sorluze eta Igorrerako behar dira. 943 31 37 82.

**Osakidetza.** Plazak libre: teknikariak, laborategiko laguntzaileak, erizain laguntzaileak, zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Sukaldariak.** Eribeetako jatebetetarako behar dira. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Gidariak, txoferrak.** Plaza libreak betetzeko hurrengo deialdiatarako. 1.800 euro hileko. 943 31 37 82.

**Peoiak.** Lorezainak, elektrikariak, iturginak, langileak, kontserjeak, udaletarako gidariak. 943 31 37 82.

## TOLOSA ▶ XAKE

Etxeberria nagusi Partida  
Azkarretako Txapelketan

Espainiako Kadeteen taldekakoan ariko da hilaren amaieran Oihana Etxenike anoetarra

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean Partida Azkarretako Tolosako Xake Txapelketa jokatu zen Tolosako Xake Elkartearen egoitzan; «jende ugari bildu zen, eta haiaiketako eta guzti, goiz atsegina igaro zuten».

Txapelketaren irabazlea Tolosa-Ibarra Xake Elkarteko Sabino Etxeberria izan zen, eta atzetik geratu ziren Javier Baroja eta Xabier Mujika, elkartekoak biak ere. Kadeteen artean, berriz, lehena Beñat Salbarredi izan zen. Bigarren Aimar Intxaurren geratu zen, eta hirugarren Jokin Mendia.

Txapelketa eguerdian amaitu zen, sari banaketarekin. Sariak banatzen Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Andoni



Sabino Etxeberria. HITZA

Imaz Tolosako Kirol zinegotzia aritu ziren.

Bestalde, aurreko astean Tolosako Xake Elkarteko jokalaririk Oihana Etxenike anoetarra Espainiako Kadeteen taldekako Txapelketara sailkatzea lortu zuen. Hil honen bukaeran jokatu da, hain zuzen, txapelketa hori Ciudad Realen.

ondo pasa jaitzea!  
**Izarti**  
txokolategia  
Sortalde, 1 • ANOETA • Tel.: 943 65 19 93

**Eguzkilore**  
loradenda  
Ondo pasa gazte festak!  
Euskalerria kalea, 26-bis  
20400 Ibarra  
Tel.: 943 670 296

**ZABALA**  
**DESGUAZEA**  
Beotibar Industrigunea, 18  
BELAUNTZA  
Tel./Faxa: 943 67 17 90  
696 593 347

## iragarki laburrak ▶

## LANPOSTUAK

**Langileak.** Bergaran, Hernanin eta Errenterian honako lanpostuak bete behar dituzte: mantenimenduko peoiak, garbitzaileak, askotariko zerbitzuak, lorezainak. 943 31 37 82.

**Mantenimendua.** Igeltseroak, arotzak, elektrikariak, gidariak. Udaletarako behar dira. 943 31 37 82.

**Haur hezitzaileak.** Plaza finkoak

betetzeko lanpostuak libre. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Harreragileak, telefonistak.** Plazak libre. Eskola Agiria dutenetik aurrera. 943 31 37 82.

**Agiritegiako laguntzaileak.** Arrasate, Bergara, Donostia, Sorluze eta Igorrerako behar dira. 943 31 37 82.

**Osakidetza.** Plazak libre: teknikariak, laborategiko laguntzaileak, erizain laguntzaileak,

zeladoreak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Sukaldariak.** Eribeetako jatebetetarako behar dira. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Gidariak, txoferrak.** Plaza libreak betetzeko hurrengo deialdiatarako. 1.800 euro hileko. 943 31 37 82.

**Peoiak.** Lorezainak, elektrikariak, iturginak, langileak, kontserjeak, udaletarako gidariak. 943 31 37 82.

KULTURA ▶

# Musika Eskolako 80 ikasleek kontzertua eskainiko dute gaur

Leitzako eta Aresoko gazteek «errepertorio zabalarekin» osatuko dute emanaldia; diploma banaketa ere egingen dute

JAIONE ASTIBIA

Gaur 19:30etik aurrera musika notaz beteko dute Leitzako zinema aretoa ikasturtean zehar Aralar musika eskolan ikasleek egiten aritu diren Leitzako eta Aresoko 80 ikasleek.

Urtero eskaintzen dute kontzertua Musika Eskolako ikasleek. Ikasturtea bukatzearekin batera —gaur izanen dute, gainera, azken eskola eguna, bertako zuzendariak adierazi duenez—, ikasitakoaren erakusketak egiteko baliatzen dute ekitaldia. Hala, bi herrietako ikasleek 8 musika-tresna landu dituzte, bakoitzak bat edo



Duela bi urteko kontzertuan, ikasleak emanaldian murgilduta. J. ASTIBIA

gehiago, eta talde instrumentaletan parte hartu dute hala aukeratu izan dutenek. Horrela, gitarra, perkusioa, trikitixa, akordeoia, txistua, zeharkako xirula, saxofoia edo pianoa, bakana, nahiz nahasian; bakarka, nahiz taldean; «errepertorio zabal eta aberatsa prestatu dugu. Denetik joko dugu: herri kantua, klasikoak... Talde instrumentalekoek rock doinuak eskainiko dituzte; eta txikieneak, berriz, koreografia bat ere egingen dute» iragarri du Irigoien zuzendariak.

Lau urtetik hasi eta 25 urte bitarteko ikasleak dira bihar parte hartuko duten musikariak.

## Diploma banaketa

Hauetatik bostek, gainera, diplomak ere jasoko omen dituzte biharko ekitaldian bertan. Hain zuzen ere, hizkuntza musikal delakoan Goi Zikloko ikasleek jakatu dituzten ikasleek jasoko dituzte. Hauek iaz bukatu zuten, «baina ikasturtea kontzertua baino beranduago bukatzen dutenez, hurrengo urtean jasotzen dituzte diplomak» argitu dute.

LEITZA ▶

## Uztailean zehar haur txokoa egingen dute berriz ere

4-12 urte bitarteko haurrentzat eta gaztetxoentzat zabalik dago izen-ematea



Eskulanak gogoko dituzte. J. A.

## ERREDAKZIOA

Udako oporraldian, uztailean zehar, Agrikolan egiteko haur txokoaren antolaketa lanetan ari dira, Leitzaldeko Euskara Zerbitzua eta Udala, Dindaia Fundazioarekin batera.

Uztailean zehar ez gelditu etxean da haur txokorako beren leloa, eta «4 urtetik hasi eta 12ra bitarteko haur eta gaztetxoek» zuzendu diete bertan parte hartzeko gonbita. Nahi izanez gero, Maimur edo Astiz liburu dendetan eman omen daiteke izena dagoeneko.

Haur txokora «hilabete osoan edo erdian bakarrik» joateko aukera eman dute; eta ordutegi aldetik, goizago edo beranduago joateko ere bai; «09:00etatik edo 10:00etatik 13:00ak arte», zehaztu dute. Haurrek «barreneko nahiz kanpoko ekintzak» egingen omen dituzte egunero; eta astean behin, «Leitzako parajeetatik ateraldiak».

LEITZA ▶ KIROLAK

## Azkeneko partidari Aurrerak dena du jokoan

«Irabaztera goaz» diote jokalariek; Mendiren aurka Mendigorrian jokatuko du, bihar, 18:30ean

J. ASTIBIA

Bihar du zirt edo zarteko azkeneko partida Aurrera futbol taldeak: bihar lortuko duen emaitzak erabakiko du mailaz igotzeko aukera. Etorrerakoan binako berdinketa egin zuen Mendirekin; orain, emaitza hura hobetu beharrean dago Leitzako taldea: edo irabazi, edo binatik gorako berdinketa lortu gero, zuzenean igoko da Nafarroako Lehenatasunezko Lurraldekako mailara.

Asko dauka jokoan, beraz, Aurrerak. Eta jakinaren gainean daude, noski, taldeko entrenatzaile eta jokalariek guztiak ere: «Denboraldi guztiko lanak ditugu jokoan. Denak partidu honetan erabakiko dira». Halabaina, partidura «oso baikor eta indartsu goaz; irabaztera», zioten gogotsu.

### «Hutsetatik ikasita»

Partidan, «presio handia» izatea espero dute; Mendik bere-

ak emanen ditu, etxean jokatzen du eta gutxieneko emaitzarekin lanak eginak izanen lituzke. Hauek, berriz, etorrerako emaitzari buelta eman beharrean dira. Baina «dehengo igandean egin genituen hutsetatik ikasita goaz; badakigu zer egin behar dugun eta zer ez», esan zioten HITZARI atzo.

Horren harira, jakitera eman zuten, aurreko igandeko partida horretan gertatu ziren bi jokalariren kanporaketan aurka errekurtsuak jarri dituzten

arren, «ahal zuten zigorrik handienak» ezarri dizkiete: Urteagari 3 partida; Alvarez, 5; eta bigarren entrenatzaile den Arrizurieta ere beste 5, nonbait «hitz gogorak» erabili omen zituen eta epailearen aurka. Horrela, dagoeneko «taldea berrantolatuta» dagoela baieztatu zuten.

Partida 18:30ean hasiko da Mendigorrian. Eta bertara joateko autobusa antolatu dute, doan, zaletuentzat: 16:30ean aterako dira igogaren bila.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKERTZA ▶

MILLAN IRIZAR BENGOTXEA jaun hil berriaren sendiaren partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zineten guztiok.



Ormaiztegi, 2006ko ekainaren 16a

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** San Juan eskolako emanaldia adinekoei. 11:30ean, Jubilatuen egoitza.  
**Tolosa.** Koadrilen Eguneko txartelak sagai Orbelan, Ikatzan eta Meskalen, 16 eurotan. Gaur, 19:00etatik 21:00etara; bihar, azken eguna, 11:00etatik 13:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

**JAIK**

**Anoeta.** Udalaren egitaraua: 11:00etan, Toka Txapelketa; 17:30ean, buruhandiak eta erraldoiak; 15:30ean, Mus Txapelketa; 17:30ean, txokolate jatea; 18:00etan, haur emanaldia; 19:00etan, Bakailoaa Saltsa Berdean Lehiaketa; 20:30ean, herri afaria; 23:00etan, Tahuma; 00:30ean, disko festa; egun osoan, eskulan erakusketa. Herri Borondatearen Aldeko Jaiak: 19:00etan, sagardo dastaketa; 20:30ean, bertso afaria; 00:00etan, manifestazioa; ondoren, Sexy Sexer eta Izeba Pilarren Ilobak.  
**Ibarra.** Gazte Festak: 19:30ean, txupinazoa; 19:45ean, batukadarekin poteoa; 20:30ean, graffiti pintaketa eta break dance erakustaldia; 22:00etan, barrikotea; 23:30ean, apustua plazan; 24:00etan, Obrint Pas eta Betagarri.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
 Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Babarrunaren ospea zabalduz

**TOLOSA ▶ Tolosako Babarrunaren Kofradia II. Biltzarrean izan da, Kantabrian**



Ezkerreko irudian, Kantabrian izan ziren Tolosako Babarrunaren Kofradiako kideak, Josemi Gomez Elosee zinegotziarekin (txapela berdearekin); eskuinean, erakusgai eta dastagai jarritako produktuak. HITZA



**ERREDAKZIOA**

**K**antabrian ere (Espainia) ezagutzen dituzte jada Tolosako Babarrunak. Izan ere, Tolosako Babarrunaren Kofradiak parte hartu zuen joan den asteburuan Santandren eta Santoñan egin zen Kofradien II. Biltzarrean. Hiru egunez, 25 kofradietako 250 lagunek elkar ezagutzeko eta kultur trukaketa egiteko aukera izan zuten.

«Tolosako Babarrunak, Gorrotxategiko xaxuak, Eceizako teilak eta zigarriloak, Ibarako piperrak... erakusgai eta dastagai jarri zituen gure kofradiak. Gainera, Tolosako eta Tolosaldeko eskaintza turistikoaren berri ere eman genien hala nahi izan zuten guztiei», diote.

Hainbat adituren hitzaldiak ere izan ziren entzungai topaketa horretan, eta Ardo eta Gastronomia Kofradien Espainiako Federazioak Fecoes sariak banatu zituen. «Biltzarrean amaieran egindako afarian gure produktuen kalitatea go-raipatu zuten hara bildutakoek». Igandean, bestalde, Antxoaren 8. Azokan izan ziren Tolosako Babarrunaren Kofradiakoak, Santoñan.

2007an, Tolosa izan daiteke III. Biltzarrean antolatzailea.

**AGURRAK ▶**

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



**URTE ASKOAN**  
**Idoia (Amasa).**  
 Sagasti Zaharreko Motorista.



**URTE ASKOAN**  
**Jose Luis Mayo.**  
 Zorion beroak bere lagun Maria Jesusen partetik.



**URTE ASKOTARAKO!**  
 Orain artean bezain polita jarrai dezazula. Denon partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Maitane (Altzo).**  
 Zorionak zure urtebetetzean etbekeen partetik.



**URTE ASKOAN, MARIJE!**  
 Non dago tarla zerrarekin? Jeje. Guztok balera ta zure imbarearekin, tortuko dugu. Mila muku Guantanamolo eta Orendango lagunak.

**Gure gomendioa**

**ekar**  
 elkar ezagutzen dugulako

www.elkar.com

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑA • TOLOSA